



SOS DEIAK Larrialdiak
Koordinatzeko Zentroek ezarri
dute galduta edo arrisku-egoeran
dauden pertsonak WhatsApp
bidez aurkitzeko aukera

Galduta dagoen pertsona bati arreta emateko eta haren erreskatea egiteko dugun arazorik handienetako bat da, hain zuzen, non dagoen jakitea. Arlo hori hobetze aldera, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari atxikitako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak SOS Deiak Larrialdiak Koordinazio Zentroetan WhatsApp bidez komunikatzeko aukera erantsi du.

Aste honetatik aurrera, Euskadin galduta edo arrisku-egoeran dauden pertsonak beren kokalekuaren berri eman dezakete WhatsApp bidez, erreskatea egiteko edo bide egokira igortzeko. Bidalitako kokalekua smartphone-ek eraman ohi duten GPS aplikazioan oinarritzen da. Horri esker txangozalearen geolokalizazioa jakin ahalko da, gutxi gorabehera, hamar metroko errore-tartearekin. Gainera, frogatu da zifrak ahoz esatea baino seguruagoa eta azkarragoa dela.

Prozedura hau da:

Beti 112 telefonora deitu behar da. Deia jasotzen duen operadoreak, deia erregistratu ondoren, 3G estaldurarik baldin badago, laguntza behar duen pertsonari eskatuko dio SOS DEIAK Koordinazio Zentrotik emango zaion telefono mugikorreko zenbakia gogoan hartu eta bere kontaktu-agendara gehitzeko, era horretan WhatsApp bidez elkarrizketa egin ahal izateko.

Los Centros de Coordinación de
Emergencias SOS DEIAK
incorporan la posibilidad de
localización de personas perdidas
o en situación de riesgo vía
WhatsApp

Uno de los mayores problemas que se presentan a la hora de atender o rescatar a una persona perdida es precisamente el de su localización. A fin de poder mejorar este apartado, la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología, adscrita al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, ha incorporado en los Centros de Coordinación de Emergencias-SOS Deiak la posibilidad de comunicación vía WhatsApp.

Desde esta semana, las personas que se encuentren perdidas o en situación de riesgo en Euskadi pueden facilitar su localización vía WhatsApp, bien para ser rescatados o bien para ser orientados hacia el camino correcto. La posición enviada se basa en la aplicación GPS que llevan habitualmente los smartphones que permitirá geolocalizar al excursionista con un margen de error de más o menos diez metros. Se ha demostrado que es más seguro y rápido que dictar las cifras.

El procedimiento es el siguiente:

Siempre se llamará al 112. El operador que reciba la llamada, tras registrarla y si hay cobertura 3G, pedirá al demandante de auxilio que tome nota del número móvil que se le facilitará desde el Centro de Coordinación SOS DEIAK a fin de que lo añada a su agenda de contactos para poder entablar una conversación por WhatsApp.



| | |
|---|--|
| <p>Behin harremanetan jarritz gero, telefonoaren GPSa aktibatzeke eskatuko zaio. Bukatzeko, kokalekua bidaliko da. WhatsApp-en aplikazioak ahalbidetzen du, zehazki "erantsi fitxategia"-aren kliparen bitartez edo "bidali kokalekua" aukeraren aurre-programazioaren bitartez. Oso garrantzitsua da jendeak aplikazioa ezagutzea eta mendira irten baino lehen harekin praktikatzea gero urduritasun-egoeretan sor daitezkeen arazoak ez izateko. Horregatik, eskatzen dizuegu zuen inguruko pertsonen artean ahalik eta zabalkunderik handiena egiteko.</p> <p>Berriro esaten dugu lehenik BETI 112 telefonora deitu behar dela (larrialdi guztietarako telefono bakarra) SOS DEIAKek aplikazioa aktiba dezan.</p> <p>Adeitasunez</p> | <p>Una vez establecido el contacto, se pedirá que active el GPS del teléfono. Por último se enviará la ubicación. La aplicación de WhatsApp lo permite, bien a través del "clip" de adjuntar archivo o bien con la preprogramación de "enviar la ubicación".</p> <p>Es muy importante que la gente conozca esta aplicación y practique con ella antes de salir al monte a fin de evitar problemas posteriores en situaciones de nerviosismo, motivo por el cual les rogamos realicen la mayor difusión posible entre las personas de su entorno.</p> <p>Reiteramos que SIEMPRE debe llamarse inicialmente al 112 (único número para todas las emergencias) a fin de que SOS DEIAK active la aplicación.</p> <p>Atentamente,</p> |
|---|--|

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 5a

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología